



# BELDUR BARIK

**INSPIRAZIO TXOKOA**

## HAUSNARKETA GAIAK

Buruak martxan jartzeko ideia desberdinen proposamenekin gatoz aurten. Indarkeria matxista ulertzeko orduan ezin dugu ulertu zerbait isolatua bezala, baizik eta, elkartzen eta gurutzatzen den eta intersekzioan ematen den zerbait bezala, hau da, norbanakoan, harremanetan eta gizartean batera ematen den zerbait bezala. Beraz, ea ondorengo galdera, hausnarketa eta irudiek zer esnatzen duten zuen barrenetan! Irrikitan gaude zuen Beldur Barik jarrera erakusten duten bideoak jasotzeko.



## NI (galdetzen)



- Nire gorputza ez da perfektua. Baina, zeinena bai?
- Batzuetan nire gorputza objektu bat balitz bezala sentiarazten didate begiradek, nondik dator motxila hau?
- Besteetan, gutxietsita sentiarazten naute besteen hitzek, begiradek, keinuek, isiluneek...ezaguna zaizu sentimendu hau?
- Nire gorputza ezagutzean, badakit non gustuko ditudan laztanak eta non ez, nola igurtziak eta nola ez, noiz musuak edo noiz ez, nork ukitu edo nork ez...baina batez ere, eroso nagoen edo ez. Eta zure gorputzak, zer daki?

# HARREMANAK (hausnartzen)

## AHIZPATASUNA

Elkarren besoetan salbu sentitzea,  
begiak ixteko bertan,  
mundutik aldentzeko eta ametsei itxura emateko,  
elkarren besoetan.

## ESPEKTATIBAK

Besteataz espero dugun hori dena.  
Eta besteak gutaz. Nik zutaz. Zuk nitaz.  
Inposaturikoa, ezerezten gaituzten idealen multzoa.  
Neska-mutil, mutil-neska. Dikotomien multzoan zer garen A edo B.  
Eta hortik nola harremantzen garen.  
Zergatik daukagu jakin behar hori?



## **KOMUNIKAZIOA**


Nola dakit nor zaren, dakarzun hori entzun gabe.

Nola dakizu nor naizen, dakarten hori adierazi gabe.

Zuk nitaz duzun ideia desegin, hitzez.

Nik zutaz daukadan ideia desegin, kontuez.

Komunikazioa da, harremanetan nork bere lekua edukitzeko giltza.



## **GARENA GARDEN**

Gerturatu gara, elkarrengana, uluka elkarri deitu ostean.

Orduak aurrera doaz eta gu gozatzera gatoz, berriro.

Oraingoan. Maskararik gabe. Epairik gabe. Armairurik gabe.

Gure gorputzak dantzan jarriz. Garena garden.

Gainerako batzuek ulertu ez arren.

## GIZARTEA (itxi begiak eta irudikatu)

### ERRITMOAK ETA NAHIAK

Bi lagun elkarrekin geratu dira arratsaldean eta plaza bateko banku batean eseri, beraien artean nabari da erakartzen direla eta bietako bat, musu ematera gerturatu da. Besteak, ezetz esan dio, nahiago duela harremana laguntasunean mantendu, baina, hala ere, insistitu egiten du lehenengoak.

*Nola moztu egoera hau?*



## MAITASUN ERROMANTIKOA

Pertsona bat beste bat ezagutzen hasi da eta bat batean, maite duela sentitzen du, inoiz inor maitatu ez duen modu berezian. Bere bizitzaren erdigune bilakatu du denbora gutxian, berataz hitz egitean badirudi perfektua dela eta harreman horrek betirako iraungo duela, harremana nolakoa izatea nahi duten elkarrizketarik eraman ez duten arren, eta oraindik, ezagutzen ez diren arren.

*Ezaguna zaizu historio hau? Nola jarraituko zenuke historiarekin, maitasun erromantikotik at?*

## MASKULINITATEA

Lagun talde batean aurreko eguneko plana komentatzerakoan, badirudi lehian dabilzala nor gehiago batean. Ozen hitz egin eta barre algarak darabiltzate ahoan. Ondokoek elkarrizketa entzun dezaketen arren, ez dute jaisten bolumena. Espazioa guztiz beraiena da. Ni ez naiz eroso sentitzen, ez dut nire burua aurkitzen.

*Gizarteak jartzen dizkigun mezuak ekarri gaituzte egoera hau normalizatzerara. Nola eraldatu dezakegu egoera hau?*



## **ASKATASUNA ETA AHALDUNTZEA**

Itzaletan bizitzearen sentrazio hori. Zer egin, zer esan, nola jantzi eta nolakoak izan dioten ahotsak, ozen dabilta etengabean, pantailan, kalean, etxean, institutuan... askatasuna lapurtu eta presioa sartuz. Badirudi gainerakoek aukeratzen dutela zer izan behar garen.

*Nola erakutsi genezake elkarrekin horrelakoetan aurre egiteko daukagun indarra?*







## ZUEN TXANDA!!

Ze proposamen duzue buruan? elkartu, partekatu, eta sortu zuen Beldur Barik Bideoa elkar inspiratzeko! Erronkarako prest?

**BELDUR BARIK** lehiaketa

Antolatzailea:



Bultzatzaileak



ipuzkoako  
1. Aldundia

